

**INGURUMENeko TOKIKO FOROAREN BILERAREN AKTA  
(20.03.03)**

INGURUMENeko HIRI ZERBITZU ETA INGURUMEN KALITATE ZERBITZUA ZINEGOTZI ARDURADUNA:  
JOSEBA ARREGI jn.

INGURUMENeko TEKNIKARIA:  
JOSU ATEKA jn.

FOROKO IDAZKARIA:  
ARANTZA CABEZA and.

AHOLKULARIA:  
EUGENIA ATIN and.

BERTARATUTAKOAK:

KOLDO NABASKUES jn. (Euskal Kontsumitzaileen Alkarteko ordezkaria)  
JAVIER LOIDI jn. (Unibertsitate munduko pertsona)  
ANDEKA ZUBIAUR jn. (Eskola Agenda 21 Aixerrota Eskola).  
TXARO ARCENIEGA and. (Basozaleakeko ordezkaria)  
KARMELE URQUIJO and. (Gizatiarreko ordezkaria)  
DIMAS RAMOS jn. (Kirol elkarteak)  
AMAIA LAUZIRIKA and. (Getxo Enpresako batzordekidea)

Honako hauek ezin etorria azaldu dute: JANIRE OCIO and. (Azpiegitura, Obra eta Zerbitzu Arloko Zinegotzia), XABIER BUENETXEA jn. (Ingurumen gaitan ospe handia duen pertsona), JUANJO QUIÑONES jn. (Urtealaiakeko ordezkaria), CARLOS ARANA jn. (Sarekideko ordezkaria), MIGUEL ANGEL ROGGERO jn. (Itxartu Taldea), eta CELIA MARAÑON and. (Ekologistak Martxan)

Getxon, 2020ko martxoaren 3an, arratsaldeko zazpitan bildu da Getxoko Ingurumeneko Tokiko Foroa, eta arestian aipatutako kapitularrek parte hartu dute.

**GAI ZERREDA**

Bileraren hasieran, Eugenia Atin arestian esandako Foroko zenbait kidek ezin etorri izana adierazi dutela aipatu du.

**1.- 2020ko urtarrilaren 28an egin ziren Ingurumeneko Toki Foroko bilkurei dagozkien aktak onestea.**

Aho batez onartu da.

**2.- Jasangarritasunerako 2016-2019ko Ekintza Planaren betearazpenaren jarraipena**

Eugenia Atinek azaldu du planaren betearazpenaren azken ebaluazioa egin dela udaleko teknikariek izandako elkarriketen

**ACTA DE LA REUNIÓN DEL FORO LOCAL DE MEDIO AMBIENTE  
(03.03.20)**

CONCEJAL DE SERVICIOS URBANOS AMBIENTALES Y CALIDAD AMBIENTAL:  
D. JOSEBA ARREGI

TECNICO DE MEDIO AMBIENTE:  
D. JOSU ATEKA

SECRETARIA DEL FORO:  
D<sup>a</sup> ARANTZA CABEZA

CONSULTORA:  
D<sup>a</sup> EUGENIA ATIN

ASISTENTES:

D. KOLDO NABASKUES (Representante de la Asociación de Personas Consumidoras y Usuarías Vasca)  
D. JAVIER LOIDI (Persona del mundo de la universidad)  
D. ANDEKA ZUBIAUR (Agenda Escolar 21 Aixerrota)  
D<sup>a</sup> TXARO ARCENIEGA (Representante de Basozaleak)  
D<sup>a</sup> KARMELE URQUIJO (Representante de Gizatiar)  
D. DIMAS RAMOS (Asociaciones Deportivas)  
D<sup>a</sup> AMAIA LAUZIRIKA (Vocal de Getxo Empresa)

Excusan su no asistencia: D<sup>a</sup> JANIRE OCIO (Concejala de Infraestructuras, Obras y Servicios), D. XABIER BUENETXEA (Persona de reconocido prestigio en Medio Ambiente), D. JUANJO QUIÑONES (Representante de Urtealaiak), D. CARLOS ARANA (Representante de Sarekide), D. MIGUEL ANGEL ROGGERO (Itxartu Taldea), y D<sup>a</sup> CELIA MARAÑON (Ekologistak Martxan)

En Getxo, a 3 de marzo de 2020 se reunió a las diecinueve horas de este día el Foro Local de Medio Ambiente de Getxo, con asistencia de los capitulares reseñados.

**ORDEN DEL DÍA**

Al comienzo de la reunión, Eugenia Atin excusa la no asistencia de algunos miembros del Foro anteriormente citados.

**1.- Aprobación del acta correspondiente a la reunión del Foro Local de Medio Ambiente, celebrada el 28 de enero de 2020.**

Se aprueba el acta por unanimidad.

**2.- Seguimiento de la ejecución del Plan de acción para la sostenibilidad 2016-2019**

Eugenia Atin explica cómo se ha realizado la evaluación final de la ejecución del Plan a través de entrevistas con los técnicos y

bidez. Elkarrizketa horietan, ekintza bakoitzaren betearazpen-egoerari buruzko balorazio kualitatiboa egin da.

Tokiko Agenda 21en Ekintza Planak 71 ekintza ditu. Udaleko teknikariek azaldutakoaren arabera, horietatik 52 ekintza osatu dira, 5 ekintza nahiko aurreratuta daude, 5 ekintza hasi egin dira eta 9 ekintza oraindik ez dira martxan jarri. Nabarmenezkoa da ekintza horietako askok izaera jarraitua dutela eta, horiei jarraipena emango zaien arren eta hurrengo planean ere jasoko diren arren, osatutzat jo dira 2016-2019 aldirako ezarritako helburua bete egin dela ulertu izan denean.

Udalsarearen formularen arabera, Tokiko Agenda 21 planaren ezarpen-maila % 78,52koa izan da Getxon.

Jarraian, ekintza guztien errebasoa egin da eta aldi honetako lorpen nagusiak azaldu dira. Eztabaida sortu duten alderdiak jaso dira jarraian. Zehaztasun gehiago jaso nahi izanez gero, erantsitako ebaluazio txostena aztertzea gomendatzen da.

Hasteko, **1. ildo estrategikoa** jorratu da, udalaren kudeaketari buruzkoa; ildo horren ezarpen-maila %75ekoa izan da. 1.1.2 ekintzari dagokionez (erosketa eta kontratazio publiko berdea), hasita bezala jasota dagoena, Koldo Nabaskuesek jakin nahi du ea zer gehiago dagoen egiteko. Lehenengo urratsak eman dira arloek erosketak eta kontratazioak nola egiten dituzten sakontzeko; hala ere, prozesu hori normalizatu egin behar da oraindik, hartara, baldintza-agiri guztietan jasangarritasun-irizpideak dituzten klausulak sartzeko. Batzuetan hori zaila izaten da erakunde publikoentzat, izan ere, nahitaez bete beharreko klausulak exijitzea, askotan, diskriminatzailea edo legez kanpokoa izan daiteke.

**2. ildo estrategikoari** dagokionez (informazioa eta parte-hartzea), ezarpen-maila ia % 90ekoa izan da. Karmele Urquijok gobernu irekiari buruzko 2.1.1.ekintzaren garrantzia azpimarratu du. Ildo horretatik, gardentasun handiagoa espero du udalaren aldetik. Bestalde, Javier Loidik, 2.1.2 ekintzari dagokionez, esan du hizkera erraza erabiltzea derrigorrezkoa izan beharko litzatekeela eta administrazio-prozedura guztiak sinplifikatuko dituen formulario bakar bat izatearen alde dagoela. Sailak kentzea da egin behar duguna, ez sail gehiago jartzea, hau da, leihatila bakar bat izan behar dugu.

Aurrekontu parte-hartzaileei dagokienez (2.2.1 ekintza), Karmele Urquijok azaldu du bere ustez mesfidantza orokorra dagoela herritarrek esateko dutena entzuteari dagokionez. Zentzu horretan, Joseba Arregik aurrekontu parte-hartzaileen arauak azaldu ditu. Azken edizioko lehenengo fasean parte hartzea 460 ekarpenekoa izan zen, eta 754 bozkakoa bigarren fasean.

Ingurumen-hezkuntzari dagokionez (2.3.1 ekintza), Karmele Urquijoren aburuz, ez litzateke ingurumenarekin zerikusia duena soilik barne hartu behar; aitzitik, balioetan, berdintasunean, aniztasunean, integrazioan, errespetuan eta gizalagean oinarritutako heziketa baten alde egin beharko litzateke.

Koldo Nabaskuesek, 2.3.4 ekintzaren ildotik, Eraikinen Ikuskapen Teknikoa egiaztatzeko kontrol- eta jarraipen-ekintzen inguruan

técnicas del Ayuntamiento. Durante las entrevistas se ha realizado una valoración cualitativa del estado de ejecución de cada una de las acciones.

El Plan de Acción de Agenda Local 21 se compone de 71 acciones de las cuales, según los técnicos y técnicas del Ayuntamiento, 52 acciones se han completado, 5 se encuentran avanzadas, 5 se han iniciado y 9 acciones han quedado pendientes de inicio. Cabe destacar que muchas de las acciones tienen carácter continuo y aunque vayan a seguir realizándose y se contemplen en el próximo Plan, se han considerado completadas cuando se ha cumplido el objetivo de la acción para el periodo considerado 2016- 2019.

Así, según fórmula de Udalsarea, el Grado de implantación del Plan de Agenda Local 21 en Getxo ha sido del 78,52 %.

A continuación se hace un repaso de todas las acciones explicando los principales logros del periodo. Se señalan a continuación los aspectos que suscitaron el debate y se aconseja analizar el informe de evaluación adjunto para un mayor detalle.

Se comienza por la **línea estratégica 1** de gestión municipal, la cual ha alcanzado un grado de implantación del 75%. En relación a la acción 1.1.2 sobre la compra y contratación pública verde que consta como iniciada, Koldo Nabaskues desea saber qué más queda por hacer. Se han dado los primeros pasos para ahondar en cómo las diferentes áreas están realizando sus compras y contrataciones en la actualidad pero aún queda normalizar el proceso para que todos los pliegos incluyan cláusulas con criterios de sostenibilidad. A veces es complicado para las entidades públicas puesto que exigir cláusulas de obligado cumplimiento a menudo puede discriminar o no ser legal.

En cuanto a la **línea estratégica 2** de información y participación, el grado de implantación ha sido casi del 90%. Karmele Urquijo incide en la importancia de la acción 2.1.1. sobre gobierno abierto y como espera una mayor transparencia por parte del Ayuntamiento. Javier Loidi por su parte comenta en la acción 2.1.2 que el lenguaje sencillo debería ser obligatorio y que sería partidario de tener un formulario único para simplificar todos los procedimientos administrativos. Lo que debemos hacer es quitar departamentos, no aumentarlos, necesitamos una ventanilla única.

En relación a los presupuestos participativos (acción 2.2.1), Karmele Urquijo explica que en su opinión hay desconfianza general en que la voz de la ciudadanía se escuche. En este sentido, Joseba Arregi explica las reglas de los presupuestos participativos. En la última edición, la participación fue de 460 aportaciones en la primera fase y 754 votaciones en la segunda fase.

En relación a la educación ambiental (acción 2.3.1), Karmele Urquijo opina que debería englobar no solo lo relativo al medio ambiente, sino una educación en valores, igualdad, diversidad, integración, respeto, urbanidad, etc.

Koldo Nabaskues, en la acción 2.3.4, pregunta por las acciones de seguimiento y control que se realizan para comprobar la

galdetu du. Hain zuzen ere, Eraikinen Ikuskapen Teknikoa egin duten erkidegoen inguruko informazioa eskuragarri dago eta abisuak bidaltzen dira eraikinek 50 urte betetzen dituztenean. Plan berriari begira, Koldo Nabaskuesek ekintza hori birformulatzea proposatu du, hartara, ekintza hasteke geratu ez dadin Energiaren Euskal Erakundearen eta beste erakunde batzuen menpe dagoenean.

Ondoren, **3. ildo estrategikoa** aztertu da, hirigintza jasangarriari buruzkoa. Ildo horren ezarpen-maila % 87,50ekoa izan da. Joseba Arregik HAPOri buruzko zehaztasun batzuk eman ditu 3.1.1 eta 3.1.2 ekintzei dagokienez. Aldaketa puntualak egin dira eraikitako hirirenen erabilerak gehiago optimizatzeko eta horiek berriz trinkotzeko.

3.2.3 ekintzari buruz (etxebizitza kolaboratiboaren eredu berriak aztertzea), Joseba Arregik aipatu du ekintzak ahalmen handia duela, baina antolamenduak baimendu egin behar duela. Etxebizitza mota horien eskaria, alde batetik, gazteengandik helduko litzateke, etxebizitza merkeago bat lortzeko, eta, bestetik, nagusiengandik, beste pertsona batzuekin batera bizitzeko eta isolatuta ez egoteko. Koldo Nabaskuesek esan du Alemanian gauza asko egiten ari direla, eta horiek aztertu ostean, orain, ezarri egin behar ditugula.

Karmele Urquijok Getxon hutsik dauden etxebizitzak inguruan galdetu du (3.2.4 ekintza), eta Joseba Arregik erantzun du eroldaren arabera 3.300 etxebizitza inguru direla; hala ere, diagnostikoa egin ostean, jakin dugu etxebizitza horietako askotan pertsonak bizi direla eta 990 bakarrik direla “kudeagarriak” (Getxon guztira dauden 33.000 etxebizitzetatik). Karmele Urquijok etxebizitza mota horien alokairua sustatzea proposatu du.

Berdeguneak handitzeari buruzko 3.3.3 ekintzari dagokionez, Joseba Arregik azaldu du lorategien eta zuhaitzen azalera handitu egin dela, funtsean, lurzorua kudeaketari esker, hau da, espazio publiko gehiago laga delako. Zehazki, aldi honetan Iturribarriko zonalde osoa gehitu da.

Andeka Zubiaurrek Ingurumen Gelara doan eskolako bideari dagokionez (3.4.4. ekintza) galdetu du ea galtzada hobeto seinaleztatzerik ote dagoen ikasleak segurtasun handiagoarekin igaro daitezkeen bertatik. Josu Atekak erantzun du dagoeneko eskaera egin dela eta laster margotuko dutela galtzadaren ezkerreko alde.

Patinete elektrikoaren Getxoko proba pilotuari dagokionez (3.4.5 ekintza), Joseba Arregik azaldu du 60 patinete erabili direla, GPS bidez kontrolatutako ibilbideekin kudeatuta. Erabiltzaileek euren telefono mugikorra konektatu behar zuten GPSa erabili ahal izateko eta zerbitzua ahalik eta seguruen izateko. Proba arrakastatsua izan dela uste dute. Karmele Urquijok adierazi du beldur dela pertsona batzuk espaloietatik oso azkar ibiltzen direlako. Erantzun diote espaloietatik ezin dela zirkulatu eta hori zigortu egin beharko litzatekeela. Jokabide hori ohikoagoa da patinete pribatuak dituzten artean, publikoak erabiltzen dituzten artean baino.

Amaia Lauzirika, aparkalekuei buruzko 3.4.7 ekintzari dagokionez, aipatu du Mesedeetako aparkalekuko sarreran egindako aldaketa oso ondo etorri zaiela merkatari, Getxokoak

realización de las ITEs (Inspección Técnica de Edificios). Efectivamente, la información sobre las comunidades que han realizado la ITE está disponible y se mandan avisos cuando los edificios cumplen 50 años. De cara al nuevo Plan, Koldo Nabaskues propone reformular esta acción para que no quede pendiente de inicio cuando dependen de otras entidades como EVE.

Seguidamente, se analiza la **línea estratégica 3** relativa al urbanismo sostenible, cuyo grado de implantación ha sido del 87,50%. Joseba Arregi hace unas puntualizaciones en las acciones 3.1.1 y 3.1.2 relativas al PGOU. Las modificaciones realizadas se han hecho con objeto de redensificar y optimizar los usos en la ciudad ya construida.

En la acción 3.2.3 sobre el estudio de nuevos modelos de vivienda colaborativa, Joseba Arregi comenta que tiene un potencial enorme pero que el planeamiento tiene que permitirlo. La demanda de este tipo de viviendas vendría tanto por parte de los jóvenes para tener acceso a una vivienda más económica como por parte de la población mayor para convivir con otras personas y no estar aislados. Koldo Nabaskues comenta que en Alemania se están haciendo muchas cosas y que tras el estudio, ahora tenemos que implantarlo.

Karmele Urquijo pregunta por la vivienda vacía en Getxo (acción 3.2.4) y Joseba Arregi responde que según padrón eran unas 3.300 viviendas, pero tras el diagnóstico se ha averiguado que hay personas viviendo en muchas de las viviendas y que por lo tanto vacías “gestionables” son 990 (de un total de 33.000 viviendas en Getxo). Karmele Urquijo propone incentivar el alquiler de este tipo de viviendas.

En relación a la acción 3.3.3 sobre la ampliación de las zonas verdes, Joseba Arregi explica que el incremento tan importante de superficie de jardines y arbolado se debe principalmente a la gestión que se ha realizado del suelo, es decir, que hay más espacio público cedido. En concreto, en este periodo se ha sumado toda la zona de Iturribarri.

Andeka Zubiaur pregunta por el camino escolar al Aula Mediambiental (acción 3.4.4.), que si se podría señalar mejor en el pavimento para que los escolares transiten de manera más segura. Josu Ateka responde que ya se ha solicitado y que pronto el lateral izquierdo de la calzada se pintará.

Con respecto a la prueba piloto de patinetes eléctricos que se ha llevado a cabo en Getxo (acción 3.4.5), Joseba Arregi explica que se trataba de 60 patinetes gestionados con rutas controladas por GPS. Las personas usuarias tenían que conectar su móvil para tener acceso al GPS y que el servicio fuera lo más seguro posible. La prueba se ha considerado un éxito. Karmele Urquijo expresa su miedo puesto que hay personas que circulan muy deprisa por las aceras. Se responde que por las aceras no se puede circular y que se debería penalizar. Este comportamiento es más propio de las personas con patinetes privados que con públicos.

Amaia Lauzirika, en el contexto de la acción 3.4.7 sobre aparcamientos comenta que, efectivamente, el cambio en la entrada en el parking de las Mercedes ha venido muy bien a los

ez diren erabiltzaileek (eta bezero posibleek) aparkalekua errazago aurki dezaketelako.

Ondoren, biodibertsitateari eta balio naturalei buruzko **4. ildo estrategikoa** jorratu da, zeinak % 81,25eko ezarpen-maila izan duen. Jarduketa azpimarragarrienak nabarmendu dira, baina bertaratuek ez dute iruzkinik egin.

Azkenik, **5. ildo estrategikoari** dagokionez (ingurumen-kalitatea eta baliabideen jasangarritasuna), ezarpen-maila % 60koa izan da. Urari dagokionez, Koldo Nabaskuesek Erkidego Urdinei buruz hitz egin nahi izan digu. Nazioarteko mugimendu sozial bat da, administrazioak oinarrizko hiru printzipio defendatzera bultzatzen dituen:

- Kalitatezko ur ugari izateko giza eskubidea, bai eta saneamendurako eskubidea ere.
- Hornidura- eta saneamendu-zerbitzuak eremu publikotik kudeatu eta finantzatzea.
- Plastikozko botiletan sartutako uraren ordez txorrotako ura lehenestea, halakoan salmenta pixkanaka ezabatuz.

Getxok dagoeneko martxan jarri dituen printzipioak direnez (azkena gehiago landu beharra dago), interesgarria izango litzateke Getxoko Udalak ekimen horrekin bat egitea.

Uraren fluorazioari buruzko 5.1.5 ekintzari dagokionez, Koldo Nabaskuesek uste du guk egin dezakegun gauza bakarra agintaritzaren eskudunari gutun bat bidaltzea dela. Bi ideiak frogatzen dituzten ebidentziak daude: zientzialari batzuen ustez hobe da fluoratzea, baina beste batzuek kontrakoa uste dute. Fluorazio-maila 12tik 9ra jaitsi da dagoeneko. Karmele Urquijok uste du logikoena maila hori gehiago jaitea izango litzatekeela.

Joseba Arregik azaldu du, 5.2.3. ekintzari dagokionez, aldundiaren erantzunaren zain daudela frakzio organikoaren kanpainari ekiteko. Lehenengo eta behin, Getxok konposta egiteko instalazio propio bat izango ote duen jakin behar dugu. Egoera berean da Bilbo ere: animalia-jatorriko hondakinak onartuko ote dituen erabaki behar du aldundiak.

Jatorritik murrizteari buruzko 5.2.4. ekintzaren ildotik, Koldo Nabaskuesek ohar bat egin du supermerkatu gehienetan erabiltzaileen eskura dauden sare-poltsa berrien inguruan. Fruta erosteko atalean daude eta garbitu eta berrerabili daitezke. Bestalde, janari freskoa eta harategiko produktuak erosteko tuperrak erabiltzera animatu ditu bertaratuak, nahiz eta supermerkatu handietan ez duten uzten, osasun-arazoak sor daitezkeelako.

Amaitzeko, Koldo Nabaskuesek esan du, kutsadura elektromagnetikoari buruzko 5.5.1 eta 5.5.2 ekintzen ildotik, plan berriari begira, inbentarioa kontrastatzeko ekintzak kontuan hartu behar dira liratekeela. Hau da, ez dadila inbentario berri bat egin, baizik eta Ministerioan dagoeneko existitzen den inbentarioa abiapuntutzat hartu dadila lizentziak eta instalazioak egiaztatzeko eta, ondoren, Ministerioak adierazitako neurriak kontrastatzeko, hartara, dena ondo dagoela egiaztatu ahal izateko.

### 3.- Galde-eskeak.

comercios para que las personas usuarias que no son de Getxo (y potenciales clientes) localicen más fácilmente el parking.

A continuación, se pasa a la **línea estratégica 4** de biodiversidad y valores naturales, con un grado de implantación del 81,25%. Se destacan las actuaciones más relevantes pero no hay ningún comentario por parte de las personas presentes.

Finalmente, en relación a la **línea estratégica 5** de calidad ambiental y sostenibilidad de los recursos, el grado de implantación ha sido del 60%. En relación al agua, Koldo Nabaskues aprovecha para hablarnos de las Comunidades Azules, que es un movimiento social de carácter internacional que insta a las Administraciones a defender tres principios básicos:

- El Derecho Humano al Agua potable de calidad y en cantidad, así como al saneamiento.
- Mantener los servicios de abastecimiento y saneamiento gestionados y financiados desde el ámbito público.
- Priorizar el agua de grifo frente al agua embotellada en plástico, eliminando progresivamente su venta de cualquier espacio.

Como se trata de principios que Getxo ya pone en práctica (el tercero hay que trabajarlo más), podría ser de interés para el Ayuntamiento de Getxo adherirse a esta iniciativa.

En relación a la acción 5.1.5 sobre la fluoración del agua, Koldo Nabaskues opina que lo único que podemos hacer es trasladar una carta a la autoridad competente. Existen evidencias en ambos sentidos y algunos científicos opinan que mejor fluorar y otros que mejor no. Ya se rebajó de 12 a 9 el grado de fluoración. Karmele Urquijo opina que sería lógico bajarlo más.

Joseba Arregi explica en la acción 5.2.3, que la campaña de orgánica se encuentra a la espera de la respuesta de la Diputación. Antes de nada debemos saber si Getxo contará o no con una planta de compostaje propia. Bilbao se encuentra en la misma situación, la Diputación tiene que decidir si admite restos de origen animal o no.

En la acción 5.2.4. de reducción desde el origen, Koldo Nabaskues hace un apunte sobre las nuevas bolsas de malla a disposición de los usuarios en la mayoría de los supermercados. Están en la sección de la frutería y son lavables y reutilizables. Por otro lado, anima a utilizar los tupperes para frescos y carnicería, aunque en los supermercados grandes no dejan por los potenciales problemas sanitarios.

Para finalizar, Koldo Nabaskues también comenta en las acciones 5.5.1 y 5.5.2 sobre la contaminación electromagnética, que de cara al nuevo Plan, contemplemos acciones para hacer un contraste del inventario. Es decir, no hacer un nuevo inventario, sino partir del ya existente del Ministerio y comprobar las licencias y las instalaciones para posteriormente realizar el contraste también las mediciones indicadas por el Ministerio para comprobar que todo esté correcto.

### 3.- Ruegos y preguntas.

Foroaren aurreko bileran egindako hiru galdera erantzun dira.

Se da respuesta a las 3 preguntas planteadas por el Foro en la pasada reunión.

Arrigunagako argien ordutegiari dagokionez, honako hau da funtzionamendua: ostiral, larunbat eta igandetan: ilunabarretik 24:00etara. Astelehenetik ostegunera: 22:00etatik 22:30era, lanparen mantentze-lanetarako.

En relación al horario del alumbrado en Arrigunaga, el horario de funcionamiento es: viernes, sábado y domingo, de ocazo a 24:00. Y de lunes a jueves de 22:00 a 22:30 para mantenimiento de lámparas.

Ildo horretatik, Amaia Lauzirikak galdetu du ea ez den udalerriko zenbait tokitan detekzio bidezko argiak jartzea baloratu. Baietz erantzun diote: Bizkaia Zubian, esaterako, detekzio bidezko argiak daude, baina sistema hori eraginkorragoa da zirkulazio gutxiagoa duten herri txikiagoetan.

En este sentido, Amaia Lauzirika pregunta a ver si no se ha valorado poner alumbrado por detección en algunas zonas del municipio. Se responde que sí, que por ejemplo en el Puente Colgante hay alumbrado por detección pero que este sistema es más efectivo en pueblos más pequeños o con menos tránsito.

Gobelako kiroldegiko gauetako zaratari dagokionez, udalak erantzun du zarata sor dezaketean bi elementu baino ez daudela (horiek baitira funtzionamenduan dauden bakarrak): igerilekuetako hezetasuna kentzeko gailuak eta garajeko airea erauzteko sistema. Hezetasuna kentzeko gailua 06:45etik 22:00etara egoten da funtzionamenduan, astelehenetik igandera, legeak xedatzen duen bezala, baina ez du ia zaratarik ateratzen. Garajeko airea erauzteko sistema 08:00etatik 21:00etara egoten da martxan, baina hiru ordurik behin 15 minutuz sartzen da soilik funtzionamenduan, automatikoki. Beraz, gauez ez dago makinarik martxan, salbu eta garajeko erabiltzailearen bat oso noizik behinean garaje barruan dagoenean, ibilgailua martxan dagoela, eta, ondorioz, garajeko ke-erauzkailua martxan jartzen bada segurtasunagatik. Azken hori oso noizbehinka gertatuko litzateke.

En relación al ruido del polideportivo de Gobela por las noches, la respuesta del Ayuntamiento es que sólo existen dos elementos que pueden originar algo de ruido al estar en funcionamiento: la deshumectadora de las piscinas y la extracción de aire del garaje. La deshumectadora tiene un horario de trabajo 06:45 a 22:00, de lunes a domingo, como marca la ley, pero apenas emite ruido al funcionar. Y la extracción del garaje tiene un horario de trabajo de 08:00 a 21:00, pero solo está en funcionamiento durante 15 minutos cada 3 horas, de forma automática. Así, por las noches no hay ninguna máquina en funcionamiento, salvo que muy puntualmente un usuario del garaje se encuentre en el interior del mismo con el vehículo arrancado y un detector de humo del garaje haga que la extracción se ponga en marcha por seguridad. Esto último sería algo muy puntual y esporádico.

Gobelaurre kaleko semaforoaren iraupenari dagokionez (Artaza institutuaren eta Romoko Eskolaren artean), semaforo hori Leioaren jabetzakoa dela erantzun dute. Inguru horretan hiru semaforo daude eta erdiko semaforoa Leioak kudeatzen du. Getxorekin koordinatu gabe instalatu zuen, institutuak erabili zezan. Horrenbestez, ez da hain erreza izango semaforoaren iraupena doitzea, hala ere, Leioari abisua helarazten saiatuko dira.

En cuanto a la duración del semáforo de la calle Gobelaurre (entre el instituto de Artaza y la Romo Eskola), se responde que precisamente ese semáforo pertenece a Leioa. Hay 3 semáforos en la zona y el semáforo de en medio lo gestiona Leioa, quién lo instaló sin coordinarse con Getxo para uso por parte del instituto. El ajuste de su duración por lo tanto no es tan sencillo pero se procurará dar el aviso a Leioa.

Txaro Arceniegak jakin nahi du ea zergatik ez duten pedalik hondakinen edukiontziek. Erantzun diote kontu hori luze eta zabal eztabaidatu zutela iaz, eta irisgarritasun arrazoiengatik aukeratu zituztela edukiontzi horiek. Mota horretako gaiak Hondakinak Kudeatzeko Lantaldean eztabaidatzen dira.

Txaro Arceniega quiere saber por qué los nuevos contenedores de residuos no tienen pedal. Se responde que el tema fue ampliamente debatido el año pasado y se eligieron los nuevos contenedores por su accesibilidad. Este tipo de temas son los que se discuten en el Grupo de Trabajo de Gestión de Residuos.

Eugenia Atinek foroko kideei galdetu die eta foroaren ohiko bilera-ordua aurreratzeko interesik ote duten. Pertsona batzuentzat ezinezkoa da lehenago etortzea, beraz, bilerak egiteko ordu ofiziala orain arte bezala mantenduko da: 19:00etan.

Eugenia Atin pregunta a los miembros del Foro si estarían interesados en adelantar la hora habitual de las reuniones del Foro. Para algunas personas es imposible acudir antes, por lo que se mantiene las 19:00 como hora oficial para las reuniones.

Foroaren hurrengo bileran 2020-2023 plan berria jorratuko da.

En la próxima reunión del Foro se tratará el nuevo Plan 2020-2023.

Getxon, 21:00ak izanik, bilkura amaitutzat jo da.

En Getxo, a las 21:00 horas se da por finalizada la reunión.